

## Funtsezko jarduerak

Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Enpresa sortzen hasi ginen unetik kontura ginen ideiei hau aurrera eramatea nahiko zaila izango zela eta aldi berean erronka polit bat suposatuko zigula. Ezinezkoa izango litzake hau aurrera eramatea aurretik jardueren plangintza bat izango ez bagenu.

Gure enpresako jarduerak bi zatitan banatuko da, guk pertsonalki egiten ditugunak eta beste enpresa baten eskuetan uzten ditugunak.

### **Gure baitan egingo ditugun jarduerak:**

- Lehenik eta behin, gure enpresa janari azkarra saltzen duen enpresa bat denez, beharrezkoa janari hori ondo landuko duen ekoizpen jarduerak egiten duen talde bat izatea.
- Baita ere, ekonomi jarduerak izatea ezinbestekoa izango da gure enpresarentzat. Arlo honetan ikerketa sutsu bat egingo da merkatuan dauden prezio honenak eskuratzeko eta horrela ahalik eta etekin handiena lortzeko.
- Garraio jarduerak oso lagungarriak izango dira gure enpresaren garapenerako. Talde espezializatu bat izango dugu janaria bezeroen etxeetara eramango dituen eta horrela haien komoditatea lortu. -Arazoak konpontzeko jarduerak ere izango ditugu. Badakigu gure enpresak arazo askori aurre egin beharko diola aurrera atera ahal izateko. Egoera onetatik ahalik eta azkarren ateratzeko, langile zehatz batzuk izango ditugu egunero gure enpresaren egoera aztertzen egongo direnak. Era berean, gure enpresa kompetentziarengandik desberdintzeko bideak aztertuko dituzte, azken batean bezero gehiago lortzeko.

### **Beste enpresen baitan dauden jarduerak:**

- Gaur egun bizi garen gizarte honetan ezinbestekoa da sareko jarduerak izatea. Jarduera hau ez duen enpresa bat oso atzeratua egongo da beste enpresekiko eta bezero asko lortzeko aukera paregabe bat galduko du. Gure enpresaren barruen ekintza hau egiteko gai ez garenez, eremu honetan adituak diren enpresa batekin harremanetan jarriko gara eta diru kopuru baten trukean kompetentea izango den web orri eguneratu bat sortuko digute. Aldi

berean eta gure webgunea egunero eguneratzeko, gure langile batzuei kurtsu bat emango zaie.